



Lankidetza hitzarmena

Lankidetza hitzarmena berritu dute, euskal produktore independenteek ekoiztutako ikus-entzunezko lanetan parte hartzeko eta ikus-entzunezkoen industriaren alorra indartzeko

EiTBk, IBAIAk eta EPE/APVk lankidetza sendotu dute, euskal ikus-entzunezkoen ekoizpen independentea sustatzeko

Maite Iturbe EiTBko zuzendari nagusiak, Joxe Portela IBAIA Ikus-Entzunezkoen Euskal Ekoizle Burujabeen Elkartereko presidentek eta Carlos Juarez EPE/APV Euskal Produktoreen Elkartereko presidentek lankidetza itunaren luzapena sinatu dute ostegun honetan Bilbon. Asmoa da euskal ikus-entzunezko ekoizpen independentea sustatzeko lankidetzan jarraitzea.

2013an sinatutako hitzarmena berritu ondoren, ETBk, IBAIAk eta EPE/APVk, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren babesarekin, lankidetza sendotu dute, euskal ikus-entzunezkoen ekoizpena garatzeko, EAEko ekoizle burujabeek egindako ikus-entzunezkoen esplotazio eskubideak eskuratuz.

Euskal Telebistak aurrean lau milioi eta erdi baino gehiagoko inbertsioa egingo du zine proiektu ezberdinetarako (fikzioa, animazioa, dokumentalak eta film laburrak), eta telebistako film eta sailetarako.

EiTBk, IBAIAk eta EPE/APVk 2015eko abendurarte luzatutako hitzarmenak emandako fruituak nabarmendu dituzte. Hartara, elkarlanean jarraituko dute Euskadiko ikus-entzunezkoen industria indartzeko.

Aurreko bi urteak arrakastatsuak eta emankorrak izan dira bereziki film emarian. Proiektu sonatuenen artean, besteak beste, *Ocho Apellidos Vascos*, *Loreak*, *Lasa eta Zabala*, *El Negociador* eta *Txarriboda* aipatu ditzakegu.

Luzatutako hitzarmenaren oinarriak

Lankidetzaren asmoen artean, '**Jatorrizko Finantziarioaren Ataria**' lortzea dago proiektu kopuru zehatz batentzat. Proiektu hauek, diruaren eta artearen ikuspegitik bideragarrienak izango dira, horrela, Euskal Herritik kanpo euskal ekoizleek bazkide ekoizleak bilatu eta proiektuen salmenta eskubideak negoziatzerakoan, babes sendoagoa izango dutelarik.

Horrez gainera, **euskal zine eta telebista produkzio egonkorra** lortu nahi da, proiektu bideragarri eta kalitatezkoen produkzioa bultzatuz. Joera eta molde



berriak babestuko dituzten proiektuak, zein egile eta lan berriak hartuko dituzte kontuan. Autore-zinemari eta publiko guztiari zuzendutako filmi eskainiko zaie arreta, beti ere, merkatuko kultur eta arte beharrei eta momentuan sor daitezkeen beharrei erantzungo dieten lanak aukeratuz.

Euskal eragileen parte hartzea ere bultzatu nahi dute, proiektu hauetan guztietan euskaldunak diren egile, sortzaile, bitarteko tekniko, aktore, finantza parte hartze, kokalekuak eta abar kontuan hartuz.

Euskararen normalizazioa euskarazko lanen sormen, ekoizpen, zabalpen eta estreinaldien bidez bultzatzea ere badu jomuga akordioak. Euskadin film luzeak, animaziozko filmak, telebistako filmak eta orokorrean ikus-entzunezko beste lan batzuk egitea da xedea.

Itunaren helburua, **nazioarteko koprodukzioak bultzatzea** ere bada, eta, batez ere, European eta Latinoamerikan egindakoak, sektoreko enpresei nazioarteko dimentsioa emateko.

Esplotazio eskubideak erosten parte hartuko du ETBk proiektu hauetan guztietan. Produktore independentearen mesederako izango da aldaketa; hartara, produktoreek lanaren titularitatea ez baitute utziko.